



Izenburua: **Lapurtutako bizkotxoaren kasua**

Egilea: **Abel Amutxategi**

Ilustratzailea: **Ivan Landa**

Bilduma: **Niko eta amona intergalaktikoa, 1**

Adin gomendatua: **8-12 urte**

ISBN: **978-84-1093-033-9**

Salneurria: **14,50 €**

Niko eta amona intergalaktikoarekin, batez ere, dibertimendu umoretsu bat eskaini nahi izan diet irakurle gazteenei.

Haurrentzako liburuei buruz hitz egiten dugunean, askotan bitartekari bezala aintzat hartzen ditugu batez ere. Umeari bizitzan nola jokatu behar duen edo zer nolako baloreak izan behar dituen irakatsiko dion bitartekari bat bezala. Baina helduok gehienetan plazer hutsarengatik irakurtzen dugu, egia esan, eta umeeek ere aukera hori eskura eduki behar dutela uste dut.

Irakurzaletasunaren sustapenak arduratzen bagaitu, behintzat, irakurketa jarduera atsegina bihurtu behar dugula uste dut. Eta hori da bilduma honen helburua.

Bildumaren abiapuntua oso sinplea da: Nikok bere amona agente intergalaktikoa dela aurkituko du egun batetik bestera. Eta, hortik aurrera, bikote honek mota guztietako abenturak biziko ditu unibertso osoan zehar. Lehenengo abentura honetan, adibidez, Payat Agiñoneko printzearen urtebetetze-bizkotxoaren desagertzea argitu beharko dute.

Oso erraz jarraitzen den istorioa da honako hau, irakurle gazteentzako aproposa, baina, aldi berean, sorpresaz eta joan-etorri umoretsuz beterik dagoen istorio bat ere ba da.

Niko eta Amona Gregoriren abenturak fantasiaz beteriko unibertso batean gertatzen dira. Eta horrekin, nolabait, haurren harridurarako gaitasuna berreskuratzen saiatu naiz. Urteak betetzen ditugun heinean, gure mundu hau zeinen harrigarria den ahazten joaten gara gutxinaka. Matematikak eta fisika eta abar asmatu ditugu mundu hori kudeatzeko, baina benetan bitxia da. Eta umetan sentitzen genuen lilura sentimendu hori berreskuratzen saiatu naiz, irakurleekin partekatuzko.

Horretarako, planeta eta estralurtar arraza ugari asmatu behar izan ditut. Eta justu irudimena eta umorearen aldeko apustu hori izan daiteke bilduma honen ezaugarri nagusienetako bat.

Gauza borobiltzeko, bildumaren abentura bakoitza haurrak etxean, familiarekin, egin ahal izango duen jarduera txiki batekin amaituko da. Kasu honetan, adibidez, lapurtutako bizkotxo berezi horren errezeta aurkituko dugu. Jarduera hauen helburua bakoitza izango da: alde betetik familia arteko une atseginak sortzea, eta, beste alde batetik, umeari irakurketaren esperientzia horretan modu fisikoago batetan murgiltzeko aukera ematea.

Azken finean, irakurlea beste agente intergalaktiko bat bihurtu nahi izan dut, Niko eta amona Gregoriren abenturak gogoz gozatu ditzan.

Abel Amutxategi  
Donostia, 2025eko irailak 17